

Aretxabaletako

Ibilbide historikoa

08

"Errekan behera"



Aretxabaletako

Ibilbide historikoa

ados
komunikazioa

Eskerrak: Felis Eraña, Joxe Mari Arenaza, Anjel Mari Izurrategi, Sabino Arenaza, Bizente Zubia, Juan Errasti (hilda), Joxe Uribetxebarria(hilda), Inazio Bengoa, Fermin Lezeta, Juan Arenaza, Javier Atxaga.

Bibliografia: • Estudio censal de las comunidades de peces en el embalse de Urkulu, URA ur agentzia
• "El caserío Ysasmendi de Goronaeta, cuna de los Ysasi Ysasmendi" .
Ramon Benavente Freixasek
• Karaitza, 6. Alea



• Urzulo, Ugastegi

Urak pilatuz Zubillagarantz

Arbeko errekaren sor lekua, AMETen esanetan (karaitza, 6. Alea) **Andarto** inguruko leize zulo eta iturrietan dago. **Degurixa** edo **Alabitako** urak berriz **Arantzera** doaz.

Andartoko arrotik behera, **Urzuloko** ur hotzak gehitzen zaizkio **Arbeletik** gertu. **Ugastegitik** behera **Troxkako iturri**koak ezkerretik. **Ugastegiko Goikoetxe** ondoan sortzen den errekatxoa, ezkutatu ondoren, **Troxkako koban** bistaratzen da berriro, eta gure errekaekin bat egiten du laster.

Beherago joanda, **Zaraia** aldetik, **Erdiko esate** inguruan beste ur negar bat sortzen da eta **Arlabanetik** behera erreka koxkor bihurtzen da, eskuinetik, **Korosta erreka**, daukagu, **Ugastegirako** hormigoizko bidean gurutzatzen duguna eta izen bereko haitz azpian sortzen dena.

Urtegi ertzean berriz, **Urbaltz** daukagu, arrokkara guztiko ur iturririk ugariena, Urtegira zuzenean ematen duten errekatxoak hauexek dira: **Dixaguenetik** gertu **Barrengarrokoa**, **Urrexola garaitik** behera datorrena. **Urdanetatik** ere txikitxo bat sartzten dela esango dugu. Bestaldetik, **Aretxu** ostetik behera **Errekabiartetik** datorrena ere, **Uxarteko** etxe-ostean urtegitratzen da.

Irabanen, **Bolibarko** erreka sartzten zaigu urtegiara, baina hau ez da betiko bertakoa, baizik eta gizonak kanal baten bitartez **Bolibarko** arrotik honaino ekarritakoa. **Larrino** aldetik **Tellerixan** sortu eta **Barruko iturri**n sartzten da urtegiara beste errekatxo bat, eta **Intxusiatik** behera datorrigu bestetxo bat.



• Errekaondoko aska, Ugastegi

Aranerreka, **Zuatzubixkar** ostean daukagu, eta sorrerako iturria **Azatzakoak** aprobetxatzen dute. Ekialderago **Galarrixak** ematen du beste metal iturri bat, **Goiko iturri** deritzona. **Azatza** aldeko errekatxo guztiok bat eginda **Olaldeko erreka** osatzen zuten **Urkulu errotako** bizilagunentzat. Gaur egun **Arbeko** eta **Azatza** aldeko guztiak, denak **Urkuluko urtegi**n bat egiten dute.



• Abarraga

Presa gainditu eta erreka beherantz jarraitzen du, **Errekarro** aldera. **Gorordo** aldetik **Kaparrategiko** asketatik datorren ura, **Makatzeko aldatz** barrenean elkartzen da erreka nagusiarekin. Aurreraxeago **Barrenzubieta**n berehala ikusiko dugu, araztegitik berriro erreka bueltatzen duten ura, ezkerretatik indar dezenteekin ateratzen den ur emari bat da, baina gizonak bideratutakoa.

Hortik behera, nabarmenenak esateagatik, **Asunderreka** ezkerretik sartuko da eta **Kortaburuko** erreka bestetik, ia leku berean, , Horrela **Saltoxingo** posue gainditu eta **Txaetako** etxe ondotik pasatu ondoren **Erguina** aldetik **Arriurdineta**n behera datorrena elkartzen da, eta **Bedoña** aldetik bertako arrokkoa, **Zalduben** sortzen dena. Hemendik aurrera, **Urkuluko erreka**, **Zubillagan** sartzten da, **oñatiko** lurretan.



Ibilbidearen mapa

Ibilbidearen mapa azken orrialdean aurkituko duzu, bidean errezagoko aurki dezazun.



01 Ibilaldiaren deskribapena



Ibilaldi ez ohikoa dela esango dugu, behin egitekoa seguruenik, Bertako lekuko izenak abentura ukitu batekin ezagutarazteko pentsatuta dago. Presa barruko pasadizoak alde batetik eta **Urkuluko erreka** 19 aldiz uretatik pasatu beharrekin, hankak ondo bustita bukatuko dugula segurua da. Praka luzeak, oinetako onak eta makila eramatea gomendatzen da, eta belauneraino bustitzeko beldurrik ez izatea.

02 Hasiera, Larrinotik...



Larrinoko elizondotik abiatuko gara **Galarrixa** aldera. **Leizabal** baserri ondoan **Larreinzarko** bidegurutzean **Intxusiarantz** egingo dugu. Bidegurutze zabal hau bere izenak dioen bezala, larrain bezala erabiltzen zuten auzokoeek, gariak eta garagararak bere garaian jotzeko.

Zuatzubixkarrera joko dugu ondoren, bertan etxe gainaldera. **Goiko zelaitik**, eta **Elortzatik** bertakoen txabola ondora ailegatuko gara. Aurrera egin eta laster **Aranerrekaren** sorrerako metal iturriarekin topo egingo dugu, Gaur egun **Azatzakoek** beraien beharretarako aprobetxatzen dutena. Aurrera eginda **Arbe arroko** ikusmira ederrak izango ditugu eta bide gurutzetan egoki hartu ondoren **Goiko iturri** ondotik Urtegiaren bueltako errepidera jaitsiko gara...



• Larrino

Arrantza



Urkuluko urtegiaren gaur egun, martxotik irailera bitartean kanaberaz arrantza egin daiteke. Bertako betiko arrainak aingira eta amuarrainak diren arren, 2010. urtean eginiko ikerketa batek erakusten digu gaur egun guztira, honako mota ezberdinetako 76.000 bat arrain daudela.

- *Albumo (Albumus albumus)*, sardinaren tankerakoa
- *Black bass edo perka amerikarra (Micropterus salmoides)*, *polita*, amuan borrokalaria.
- *Karpa arrunta edo Royal (Cyprinus carpio)*, gehien arrantzatzen dena
- *Ispilludun Karpa (Cyprinus carpio specularis)*, belar jalea, ahateen kalterako
- *Karpina (Carassius auratus)*,
- "Pez sol" (*Lepomis gibbosus*)
- *Amuarraina (Salmo trutta)*.
- *Aingira (Anguilla anguilla)*.

Amuarrainak, ur hotzak eta oxigenatuak ditu gogokoak eta horregatik Urbaltz aldeko muturrean ikusi daiteke, arrautzak jartzera handik, errekan gora igotzen da. Azken urteetan nahiko lan izaten duen arren, izan ere urtegiaren ur maila neguan oso behean egoten da eta ezin izaten du bere bidea egin.



• Amuarraina

Aingirarena ere bitxia da, daudenak oso handiak dira, eta bere ugalketarako itsasoa ere behar dutenetik eta urtegitik ezin direnetik atera, adituek uste dute, urtegia egin zen garaikoak direla, urte askotan bizitzeko gai direlako. Gainontzeko arrainak gizakiak beste nonbaitetik ekarritakoak dira.



• Aingira



Baina **Urkuluko erreka**, urtegia egin aurretik ere arrantza leku ona zen. Ordukoak ehizatik askotan esku utzik bueltatzen ba ziran ere, arrantzatik sekulan ere ez.

Estimatuena orduan **amuarraina** zen. Gordelekua antzeman ondoren, eskuekin harrapatzen zen. Ibiltzen zirenak ba zekiten leku onenak zeintzuk ziren; **Erreka zabal** zeritzon parajeen, harlosa handi baten azpian, **Urkuluko** zubipean, **Kortaburu** parean, eta **Saltoxin** baino gorago hiru harri dauden toki hartan esaterako. Askotan ur nahiko sakonetan, eskuekin arrainarengana ailegatzeko murgil egin beharra egoten zen, arnasari eutsita. **Urkuluko malatua** ere toki aproposa zen eta garbitzeko hustu egiten zen unea aprobetxatzen zen arrantzan erraz egiteko.

Aingirak ere izaten ziren. Gauzez harrapatzen ziren zizare handiekin: errekan alde batetik bestera soka edo kordel bat bota eta hari lotuta sei edo zazpi antzuelo zizare handi banatik, erreka zabalera osoa harrapatzen zutelarik. Goizalderako ia segurua zen bat edo beste harrapatzea. **Loinak** ere ba zeuden.

Eskailuak eta **Sarboak** txikiak dira, baina ugariak ziren, sareekin harrapatzen zituzten batzuk. Edo bestela **ezkailuak** txanpan botilari ipurdia zulatuta, barruan ogi apurrak sartu amu bezala eta bertan gelditzen ziren irten ezinik. Sarboak tenedorearekin ere harrapatzen ziren. Bertako **Kangrejoa** ere eskuz harrapatzen zen.



• Loina



• Bertako kangrejoa



• Eskailoa



• Sarboa



... Urtegia jeitsi ondoren, presa aldera egin ondoren, presako zaintzaileen baimen eta laguntzarekin horma barruko tunelak zeharkatuz beheko errekaraino jaitsiko gara. Berriz kanpora irtendakoan, **Makatzeko aldatzetik** behera **Barrenzubietara** egingo dugu, Hauxe izango da ibilaldi honetan zeharkatuko dugun zubi bakarra.



• Barrenzubieta

Ezbehar bat Urkuluko errekan



Historia hau, Ramon Benavente Freixasek idatizitako "El caserío Ysasmendi de Goronaeta, cuna de los Ysasi Ysasmendi", liburutik atera dugu.


Cristobal Ysasi Ysasmendi, **Azatzako Sorginmendi** baserrian bizi zen eta 1800. urteko apirilak 8an etxetik atera zen isuskiak egiteko ilarra batzuk mozteko asmotan. Ez zen berriro etxera bueltatu. Egunean bertan auzotarrak elkartuta bere bila abiatu ziren iluntze aldera, baina ez zuten aurkitu. Hurrengo egunean, **Okineko** mutikoak, bezperan Cristobal **Urkuluko errota** parean ikusi zuela bere behiekin eta **Azatzak isasi** alderantz zihoala esan zuenez, billaketarekin **Urkulutik** behera jarraitu zuten. **Barrenzubietan** erreka putzu baten hilda aurkitu zuten. Han zirenak ez ziren ados jarri apaizari eta agintariei aurretik honen berri eman gabe, uretatik ateratzeko. Etxera bueltatu eta agintariokin batera arratsalde partean bueltatu ziren berriro Barrenzubietara, baina gorpua ez zegoen bertan. Euri zaparrada fuerte bat bota zuenetik, urak errekan behera eraman zuen nonbait.

Bi egun jarraian egin ziren billaketak **Satoxinen** behera eta **Erguinaraino**, eta gauza bera egin zuten **oñatiarrak** handik behera, **Zubillagaraino**. Ez zuten aurkitu. **Bergaran** erreka lur mutur baten hilotz bat aurkitu zutela, ailegatu zen zurrumurua Aretxabaletara, gure Cristobal izan zitekeela pentsatuta, bertara joan zen **Aretxabaletako** alkatea, baina iritsi zenerako, ordu pare bat aurretik lur emanda zegoen, nor zen jakin gabe, hori bai, ikusi zutenen bergararren iritzi, bere janzkeratik **Leintzitarra** izan behar zuela pentsatu ei zuten .

Azkenean apirilak 13an beharreko baimen guztiekin, berriro kanpora atera zuten gorpua eta bere auzokideek bera zela ziurtatu ondoren, **Bergaran** gelditu zen betirako zorigaiztoko gizon hau.



• Urkulu, erreka



Iruatx

Korostako atxa

Espillamendi

Santikurtz

Iruatx peko kobie

Iruatxpe

Korosta erreka

Txorikoba

Infernuko arratie

Andarto

Ametzueta

Santu koba

Urtao

Aumategi

Orkatzategiko kobie

Ixako atxa

Orkatzategi

Buetratx

Mintegi zaharra

Basobaltz

Burbixe

Intsinis

Urdaneta

Larratxo

Larreskina

Basandi

Zelai zuri

Zelaitxueta

Ametzola

Elortza

Zubillatxueta

Koruetazelai

Aitzorrotz

Etxebarri

Kanterie

Markitegi

Erlatei ondue

Artetako atxa

Urbaltza

Lanbrotza

Arteta

Arantzategi


Luanondo

Elguen

Abola

Etxegarai

Hemendik aurrera ia 2 kilometrotan, **Urkuluko errekan** behera egingo dugu. Erabat galduta dagoen gurdí bide bati jarraituz. 17 alditan hankak busti beharra izango dugu **Andrasolora** iristeko, **Kortaburu** barrena eta **Saltoxin** ezagutuko ditugu bidean. Bide hori utzita erreka beste behin pasatuko dugu **Txaeta** eta bere zelaia ezagutzeko. Eta azken aldiz berriro, **Kortaldera** pasatzeko. Bertatik **Urzabaler**a jarraituko dugu. **Erlateitxo** ondoan **Urzabalgo** etxaburutik gora **Arrasaterako** ur-bidea gurutzatu eta **Larrinorantz** igoko dugu.



Zubiak

Erreka, alde batetik bestera pasatu beharra


Erreka, sakona denean edo ur asko daramanean, alde batetik bestera igarotzeko, zubiak askotan ondo etortzen dira. Oraingo gure errekan goitik behera hasita, **Ugastegin** bertan daukagu lehenena, **Behekoetxe** parean, estua eta porlanezkoa, oinezkoentzako, gaur egungo bide hormigoituak, etxeetara ailegatzeko erreka gurutzatzen duen lekuan. Honen aurrekoa 20 bat metro beheratxoago ei zegoen.

Behera eginez, **Troxkako harratie** pasatu eta aurrerago, **Mandabideko** zubia daukagu, harri losa bakarreakoa, hau ere estua oinezkoena bakarrik. Puntu honetan bereizten dira **Mandabidea**, gaur egun hormigoizatua, eta erreka ertzetik **Arbera** dioan bide xidorra. **Arbe**ko etxeak ere ba du beste bat bertakoek oilategira pasatzeko erabiltzen zutena, gaur egun porlanezkoa da. **Ukuluko** presa eraikitzekeo harria atera zen kantera parean dago hurrengoa, zabalera osokoa eta modernoa. Puntu honetan **Arberako** bidean ba zegoen lehenago ere egurrezko bat. **Urbaltzen** iturri ondoan dago bestea, urtegiari buelta ematen diogunean denok igarotzen duguna, hemen ere urtegia ez zen garaian ba zen beste egurrezko bat.

Behera jarraituta, zer esanik ez, ur putzu galanta, urtegia, hurrengoa aurkitu arte, **Urkuluko presa**, lehen aipatutako kanteratik, gau eta egun harria garraiatuz eraiki zutena. **Makatzeko aldatza** jeitsi eta **Kortabururako** bidean, **Barrenzubieta**koa da hurrengoa, Mariano Okinak egindakoa. Hortik behera **Erreka aroraino**, ez dugu besterik aurkituko. **Txaeta zelaitik Kortaldera** pasatzeko ba zen oinezkoentzat egurrezko zubi estu bat, gaur egun astarrenak ikusi ditzakegu. Hortik aurrera **oñatiko** eremuetan aurkituko genuke hurrengoa.

Urtegiak berak ere irentsi zituen hainbat zubi, eta eraiki zituztenen ohoretan, hemen gogora ekarri nahi ditugu. Esan dugun bezala **Urbaltz** pare horretan eta **Igeri pozuaren** tartean **Arbera** bidean ba ziren bi zubi egurrezkoak, bi egur luze aldenik alde eta gero trabesakoak lur zoriz estalita. Hurrena **Ikarango** zubia, porlanezkoa eta zuzena bide zabalera osokoa, **Errotazaharreko** zubia harrizkoa zen arku handikoa, gora igo beharrekoa, oinezkoak edo/eta astoarekin pasatzeko, gurdia errekatik pasatzen ziren. **Siondo**koa ere berdina ei zen, baina hau hondatu zenean berria egin zen porlanezkoa, Jenaro arotza maisu zelarik.

Uzar txiki eta, **Barrutei** ondotik **Txurleku** eta **oñati** aldera zihoan bideak ere erreka pasatzen zuen; oinezkoentzat egurrezko zubi bat ba zegoen, bi egur luzeen gainean trabezkuek zituena. **Urkuluko errotatik** gertu ba zen beste bat, harrizkoa, **Mitarte garaiko** Mariano Okinak egindakoa (ikus "6. Aretxabaletako ibilbide historikoa) **Olaldeko** errekan, **Urkuluko** errota ondoan ere ba zegoen beste zubi bat oinezkoak Kortaburu aderako bidetik errotara pasatu ahal izateko. Erreka honetan gora eginez, **Beheko iturri** ondoan ba zegoen enbor bat zubi lana egiten zituena, **Arrua** aldera pasatzeko.



Bidekurtzie
Erdikolaue
Asunderrekako iturrix
Isasi
Asunderreka
Galarrixa gainek
Gain-oste
Basobaltz
Albitxui
Auzogaztainui
Irubideta
Urkimendi
Zimeltzu
Abadebaso

• Galarrixa

Urak gainezka



Koruetako erreka, beste erreka guztiak lez, mendiko urak itsasorantz bideratzen ditu. Baina urak beti ez dira bere bidetik ibili izan. San Agustin egunez, 1942ko abuztuak 28an gauetz bota zuen euritea ez du ahanzten **Larratxon** ikazkinen zebilen Juanito **Zelaikoak**, izan ere aterata zeukaten ikatz guztia eraman ziren urak errekan behera, betetako zaku bakar batzuk **Kortaburu** inguruan aurkitu zituzten gerora.

Ikazkinok lur zoriz estalitako txabola zeukaten gaua igarotzeko, eta ez ziren bat ere busti, gorago, **Sakon aundixetan** egurretan zebilen gizon koadrilak berriz, aterpea txapaz eginda zeukaten, inguruan orbelarekin tapatuta eta arekarik atera gabe. Ura sartu zitzairen eta erabat bustita bukatu zuten, sua pizteko pospororik ere ez zeukatela gelditu ziren. Argitu zuenean **Intsinis**-eraino etorri ziren ikazkinok, eta **Ametza** aldeko zelaia oraindik, urak agerian, zuri ikusi zituzten. Gau hartan bota zuen ur jasa handia, lurrak irentsi ezinean gogoratzen ditu. Ur haiek, **Arbe**ko etxe barrutik ere pasatu ziren, eta zelai bazterretako harrizko ormak aurrean eraman zituen belardiak hondatuz. Beheko **Igeri pozue** ere harriz beteta gelditu zen. Erreka izkinatako etxeetan, txerriak ganbarara jasotzen ere ibili ziren, nolabait babestu nahian.

Mendietxeko Luis mutikoa, gainontzeko egunetan lez, **Sakon haundixetan** zebiltzanean Kablean behera kargak jaisteko beharrezkoak ziren poleak eramatera joan zen hiru astorekin. Euri dezente hasten zuela eta ezingo zuela aurrera egin pentsatuta bik alde eginda, asto gaztearenarekin etxera bueltatu zen. Biharamunean baso mutilok holako euritearen ondoren, bi asto bakarrik ikusi zituztenean, mutikoarekin okerrean pasatu zela pentsatzen hasi ziren eta presaka behera etorri ziren etxekoei horren barri ematera. Zorionez mutikoa etxean zegoen onik.

Txarri mahaiarena



1941. urteko negu aldera, **Sakon-haundixetan** pagoak bota, eta bertan zerratu ziren sukaldeko mahaia adinako tauloi galantak eginez. **Koruetazelaira** airez garraiatu zituzten kableak erabiliz. Horretarako, bata bestearen jarraian bi kable tirada jarri zituzten Zakarias zenak eta bere baso mutilek: **Sakon-haundixetatik**, **Ixaako-hatxera**, aurrenekoa, 106m luze ingurukoa eta **Ixaako hatxetik-Korueta**ko **zelaira** bestea 2164m. luzera ingurukoa, tartean arku bakarra zuelarik lagungarri, Arteta buruan. **Larratxon** ikasginen zebiltzanean ere aprobetxatu zuten garraio bide hau ikatza Koruetaraino ekartzeko.

Koruetako-zelain zegoen egurrezko tomu bat erabiltzen zuten kablea tiran jartzeko, eta bertan egon ziren kastillatuta ohol sendook.



• Txarri mahaia

Siondora bidean zubia egon arren gurdiak errekatik pasatu behar izaten zuten. Bertan ba zen balantza handia eragiten zien zulo bat, eta hantxe jartzeko eraman zuten horretarako tauloi bat. Bere lana ondo betetzen zuen, baina lehenengo uraldian erreka eraman zuen. **Urku**lu inguruan kateatuta gelditu zen arte. Bertan jaso zuen Mariano errotariak, ez zen arrotz lanetan trebatua baina, hanka batzuk jarri eta txarri mahaitarako erabili zuen.

Ur golpe handietan, **Azatza** aldeko erreka, **Olalde**koa, etxe barruraino sartzen zitzairen **Urku**lukoei, eta urari bidea emateko, ittuako atea zabaltzen zien. Holako baten txarri mahai hori eraman zuen **Barrenzubixetaraino**. Joxe, bertako mutikoak, bizkarrean hartu eta etxera bueltatu zuen berriro. Handik urte batzuetara urtegia zela eta etxetik alde egin behar izan zutenean, txarri mahai hori **Mendietxe**ra eraman zuten, lehengusuei ondo etorriko zitzaie eta.

Bixente **Mendietxe**koa, etxetik etxe txerri hiltzen ibiltzen zen, eta askotan berarekin eramaten zuen txarri mahai hori etxe batetik bestera. Gaur egun 74 urte geroago txarri mahai hori bizi da, nahiko serenduta, baina berriek ez dagoen artean erabilgarri.


04

Ibilaldia jarraituz...



Urkimendira igo eta hemendik aurrera nahiko lautadan, okerrean eginda, **Egiluzetik Bedoña** auzoko etxeak ikusiko ditugu. aurrera egin eta **Baso poton** mendiko bizikleta zaleen jaitsi leku harrigarrien ondotik jarraituta, **Atxarragako** iturri ondotik pasatuko gara. Jarraituta, **Kakoteiko txabola**ondo gainetik, **Auzo mintegitik**, **Zupide** barrenetik **Larrino Etxebarrira** joko dugu, handik aurrera hasierako bidearekin bat egingo dugu **Larreinzarren**.

• Bedoña egiluzetik




Ibilbidearen mapa

wikiloc zintzilikatua.



Ibilbidearen deskribapena

- **Luzera:** 10 km
- **Zailtasun maila:** Ertaina
- **Altuera minimoa:** 287 m
- **Altuera maximoa:** 503 m
- **Denbora:** Gutxi gora behera 4:30



• Ibilbidea interneten:

<http://eu.wikiloc.com/wikiloc/spatialArtifacts.do?event=setCurrentSpatialArtifact&id=14356676>

